

# Bero-beroan

## Iraileko %60k ez du gainditu azterketa

**EUSKO JAURLARITZAREN** Iraile programaren bidez, euskarako lehen hizkuntz eskakizunerako 148 irakasle aurkeztu ziren eta 64k gainditu dute proba (%57k ez). Bigarren hizkuntz eskakizunerako 276 irakasle aurkeztu ziren eta 105ek gainditu dute proba, (%62k ez).

## HUHEZIKo ikerketari buruz Hizkunean

**HIZKUNEA** Soziolinguistikako aldizkariak sarean ([www.euskara.euskadi.net/r59-3540/eu/](http://www.euskara.euskadi.net/r59-3540/eu/)) zintzilikatua duen azken artikulua Matilde Sainz eta Maria Pilar Sagastak egina da. Mondragon Unibertsitateko kide hauek HUHEZI fakultatean eleaniztasun-gaitasuna garatzeko abian jarritako plangintzaren barruan euskarako eskoletan egin duten hausnartze-praktikaren adibidea eskaini dute.

## Euskararen balio ekonomikoaz

**MIKEL ZALBIDEK** euskaltzain izendatu zutenean egin zuen sarrera hitzaldiaren harira, Carlos Ruiz Gonzalezek hausnarketa egin du [www.erabili.com](http://www.erabili.com) web gunean euskararen balio ekonomikoaz. Euskarak duen merkatu-balioa kalkulatzek mereziko lukeela dio berak. Honela dio pasarte batean: “Ondasun eta zerbitzu zaku handi horren [hiri sektoretako Barne Produktu Gordina] zer zati sortzen du euskaraz? Eta zenbat sortzen da euskaraz? Ez dut hizkuntzari dagokion daturik aurkitu.

Gure etxean, Kutxan, saiatu gara ariketa bat egiten. Lau euskal kutxen artean, 110.000 milioi euroko balantzea metatzen dugu. Gure estimazioen arabera, bezeroarekiko harremanetan laurden bat gauzatzen da euskaraz, batez beste. Beraz, 27.000 milioi izan daitezke euskaraz sortuak, erdia inguru Gipuzkoan”.

## BAHEA

Davyth Hicks Eurolang hizkuntza minoritarioen agentziako erredaktore buruak [www.gipuzkoaeuskara.net/en](http://www.gipuzkoaeuskara.net/en) esanak: “Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoa (EBLUL) 1982an sortu zen, estaturik gabeko eta eskualdeko hizkuntzak sustatu eta babesteko. Sortu zenetik, hizkuntza komunitate askok aurrerapausoak egin dituzte hizkuntzaren galera alderantzizatzeko prozesuan, eta komunitate horietako askok autonomia politiko esanguratsua lortu dute. Autonomia horri esker, hezkuntza arloan eskumenak hartu ahal izan dituzte, eta, beraz, beren hizkuntzen garapena zuzendu eta planifikatu ahal izan dute; hori gertatu da Galesen, Euskadin, Katalunian, Galizian eta Eskozian. Horrez gain, Irlandako gaelikoa EBko hizkuntza ofizial bilakatu zen 2006an. Hala ere, nahiz eta hizkuntza horiek aurrerapenak izan, beste batzuk gero eta baztertuago eta gutxituago daude, Frantziakoak, bereziki. Urte askoan, estatu horrek “eskualdeko” hizkuntzak errotik desagerraraztera bideratu ditu bere politikak, eta 2007an ere, nahiz eta Europako politikaren giltzetako bat hizkuntza aniztasuna sustatzea izan, ez dirudi egoera hori aldatuko denik. Besteak beste, bretoiera (UNESCOk galzorian dauden hizkuntzen artean sailkatu du), euskara, katalana, korsikera eta okzitaniera mehatxupear daude Frantzian. EBk ezin du hizkuntza bati laguntzeko estatu baten barruan lan egin: hau da, modu sinplean azalduta, EBk ezin du estatuen barne politikan esku hartu. Horren guztiaren ondorioz, European estaturik gabeko eta eskualdeko bi hizkuntza mota sortzen ari dira: autonomia politiko sendoa dutenak eta halakorik ez dutenak. Ingeniari espazial izan gabe ere erraz ondorioztatzen ahal da zergatik den autonomia handieneko tokietan hizkuntzen garapena handiagoa, eta zergatik autonomia-rik ez dutenetan hizkuntzak atzean geratzen diren”.

## Enpresarien mandatugile

ELAk, Euskal Herrian afiliatu gehien dituen sindikatuak, Iruñeko eta Lakuako Gobernuak “enpresarien interes ekonomikoen mandatugile” baino ez izatea leporatu die. Salaketa hori egin die “aurrekontuentzako darabilten politika neoliberal”-rengatik. Klase kapitalistaren aberaste ikaragarria da aipatutako neurri horien fruitua; maila berean, langileen eta herriko klaseen pobretzea. Ekonomia hazten ari da, baina ez da banatzen; alderantziz, klaseen arteko desberdintasuna izugarri handitzen ari da. Langileen bizi baldintzak okerragoak dira eta datorren belaunaldia behartsuagoa izango da. Enpleguaren kalitatea eskasa da eta gazteek zailtasun handiak dituzte bizitza autonomoa gauzatu ahal izateko. Pobrezia emakumeen artean zabaltzen da batez ere. Lan istripuek hor jarrai-

tzen dute, urte honetan jada hirurogei biktima inguru izan dira Euskal Herrian. Bitartean, Lakuako eta Iruñeko Gobernuak “enpresarien interes ekonomikoen mandatugile” bezala jokatzeko segitzen dute. Eskutik helduta joaten dira, eurekin parte hartzen dute ekintza sozialetan, eurekin paktatzen dute. Eurei zerbitzatzen diete, euren aurrekontuekin, euren zergak gutxituz eta diru-laguntzak eskainiz. Ustez euren aurka egiten den biolentzia baino ez dute kondenatu eta salatzen. Eta mobilizatzen dira. Lanheriotzak daudenean aldiz, isildu egiten dira eta hildakoen familiak eta lagunak alboratu egiten dituzte. Logika neoliberal da: enpresarien interes ekonomikoen mandatugile izatea.

Juan Mari Arregi

## Nafarroan gobernu aukera guztiak zabalik daude oraindik

**ETA-GOBERNUAREN** eta Batasuna-PSOE-EAJren arteko bileren aieratzearekin jarraitzen da, batez ere *Gara*-ren aldetik. Batek zein besteak zabalduko informazioek nekez erakarriko dute familiakoa ez dena. *Gara*-k kontatutako gauza asko izan daitezke egiazkoak, batez ere Espainiako Gobernuaren borondatari dagozkionak; baina oro har, informazioa ETA

eta Batasunaren galbahetik pasatua dago eta, beraz, negoziatioaren kapitulua alde baten jardura justifikatzera bideratua.

PSOEren negoziatzaile Jesus Eguirenek, "persona bezala frakasatua" sentitzen dela adierazi dio *Danbolin* Zestoako herri aldizkariari. Beltz ikusten du etorkizuna: "Baten batek pentsatzen badu nahiz eta oportunitate hau galdu bi urte barru ahal izango dela, nik uste dut oso deskuidatuta dagoela".

Kontraste erabatekoa egiten du Fernando Barrenak ARGIA honetan bertan dioenarekin: "Ez dago elementurik prozesua bukatu dela pentsatzeko".

Eta Estatuko komunikabide gehienekin kontraste eginez –baita bertakoeekin ere– *The Economist* astekari britainiar ospetsuak gatazka bortitza gainditzeko hiru printzipio iradokitzen ditu ekainaren 9ko zenbakiko editorialean. Bat, "Akatsa da pentsatzea ETAREN terrorismoarekin indarra eta zigorra bakarrik erabilita amai daitekeela". Bi, eta Erresuma Batuko ispilua erabiltzen du ideia hau azpimarratzeko: Londreseko politikariek onartua dute Ipar Irlanda eta Eskoziako biztanleen gehiengoek independentzia nahi badute, ez dagoela aurka egiterik;



Madrilgo gobernu guztiak, aldiz, ideia horren aurka agertu direla dio. Hiru, ETArekin amaitzeko edozein planek PSOEren eta PPren adostasuna beharko duela.

**EREMU ABERTZALEARI** so eginez gero, gero eta dinamika politiko berezkoagoa du Nafarroak, batez ere EAArekin erkatzen badugu. Nafarroa Bai koalizioa da horren adierazle argienetakoa, eta bere ibilbidea oraindik laburra bada ere, Nafarroako alderdi abertzale gehienek norabide hori bultzatzen dute, ez arazorik gabe.

15-20 urte atzera eginez, abertzaletasunari zail zitzaion sinestea noizbait erabaki eskubiderik izanez gero, eskubide hori esparruka gauzatu beharko zuela. Gaur egun, gero eta argiago dago EAek, Nafarroak eta Iparraldeak beren dinamika propioak dituztela eta dinamika horiek markatuko dituztela erabaki eskubidean edota lurraldeen arteko harremanetan jarri beharreko indarra.

Azken 30 urteetan abertzaletasunaren baitan modu desberdinean eman den etengabeko baina ez oso ageriko eztabaida da: zer da eraginkoragoa nazio eraikuntzaren ikus-

pegitik, nazio giza egituratu gabe dagoen herriaren norabide argi eta indartsuz tiratuko duen ikusmolde zentralista, edo hiru esparru instituzional-administratibo nagusien ikuspegi federala bultzatuko duen harremana?

Ibarretxe Plana, departamenduaren aldeko eskakizunak, Nafarroa Bairen sorrera eta garapenak, Euskal Herria Bai... eredu

federal horren ikusmoldea gailentzen ari dela dirudi. Batetik abertzaletasunak hiru esparru horietan dituen indar maila oso desorekatuagatik; bestetik, jadanik egindako ibilbide historikoak ezaugarri desberdinak dituzten lurraldeak egituratu dituelako; azkenik, herritarren borondatea irabazteko formularik eraginkorra bide delako.

**NAFARROA ETA** EAeko hiru lurraldeetako foru gobernuen eraketa uneari, ostera, gero eta denbora gutxiago geratzen zaio. Kateen erresumari begira, UPNren eta NaBairen jarrera ulerterrazak dira: Sanzek gidatutakoek ohiko botere eta jardun moldeei eutsi nahi diete kosta ala kosta; abertzaleek, oraindik ere aukera sinestu ezinez ia, Gobernuari kosk egin eta abertzaletasunaren aukera historikoa baliatu nahi dute UPNren hegemonia erabatekoarekin amaitzeko.

Zailagoa da ulertzea PSNren jarrera. Jakina da Ferrazen erabakigarritasunaz eta, beraz, ikusi beharko da uztailaren hasieran Espainiako Kongresuko eztabaida orokorrean zer gertatzen den. Oraindik gobernu aukera guztiak zabalik daude.